



ALKATEAREN PROBIDENTZIA

Udal honek udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen Ordenantza aldatu nahi du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 130. artikulua indarrean dauden arauak aldizka berrikustea eskatzen du, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko eta indarrean dauden arauak aurreikusitako helburuak zein neurritan lortu dituzten eta haietan ezarritako kostua eta kargak justifikatuta eta behar bezala kuantifikatuta zeuden egiaztatzeko.

Udal-ordenantzak aldatzeko, horiek onartzeko prozedura bera jarraitu behar da, Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2021eko martxoaren 23ko ediktu bidez, udal-ordenantza hori aldatzeko asmoa jendaurrean jarri zen, hoguei eguneko epean, udalaren webgunean argitaratuz. Herritar batek iradokizun bat bidali du, udal-etxebizitza tasatu bat eskuratzeko bizilekuaren betekizuna autonomia-erkidegoan babes ofizialeko etxebizitzetarako finkatutakoarekin parekatzeko.

Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezartzen duenez, ekimenaren testua idatzi aurreko kontsultari kalterik egin gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoei eragiten dienean, zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion web-atarian argitaratuko du testua, eraginpeko herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak eskatzeko.


Beraz, hauxe xedatzen dut:

LEHENENGOA.- udal-etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal-ordenantza aldatzeko proiektuaren testua udalaren web-atarian argitaratzea 15 egunez, eraginpeko herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak eskatzeko.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	
<p>Egiaztapen kodea (CSV) / Código de Verificación: 1d74ad7269df5459bae86aa73f9d3b346b59f36c Erreferentzia-zenbakia / Nº Referencia: HI9000-000079/2021 Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do</p>		
Sinadura / Firmado por JON IRAOLA (Alkatea / Alcalde)	Data / En fecha 25/05/2021 18:09:51	

BIGARRENA.- Espedientea instruitu ondoren, organo eskudunak onartzera bidaltzea.

ALKATEA.

EIBARKO UDALA	AYUNTAMIENTO DE EIBAR	
<p>Egiatzapen kodea (CSV) / Código de Verificación: 1d74ad7269df5459bae86aa73f9d3b346b59f36c Erreferentzia-zenbakia / Nº Referencia: HI9000-000079/2021 Baliozkotze-URLa / URL de validación: https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do</p>		
Sinadura / Firmado por JON IRAOLA (Alkatea / Alcalde)	Data / En fecha 25/05/2021 18:09:51	